

## ALKATEAREN ERABAKIA

**GAIA:** MUNIGEX - 2025DZIN0001 Kaleko katuen kontrola

**ESPEDIENTEA:** 2025DZIN0001

**INTERESDUNA:** KUXKUXERO KATUEN DEFENTSARAKO ELKARTEA (IFK: G75416248)

Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, 25. artikuluan, esaten du udalerriek, beraien interesak kudeatzeko eta beraien eskumenen esparruan, auzo-erkidegoaren beharrak eta nahiak betetzen lagundu dezaketen jarduera mota guztiak bultzatu eta nahi adina zerbitzu publiko egin ditzaketela. Lege agindu hori burutzeko moduetako bat erakunde eta elkarteei herri onurako jarduerak egiten laguntzea da.

Zentzu horretan, Eskoriatzako Udalak ekitaldi honetarako udal aurrekontuan 1000,00 euroko dirulaguntza bereizia aurreikusten du KUXKUXERO KATUEN DEFENTSARAKO ELKARTEA-ren alde, 2025. urtean hainbat kaleko katuen antzuteak sortutako gastuak finantzatzen laguntzeko.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 22.2a) artikulua esaten du toki entitateetako aurrekontuetan aurreikusitako dirulaguntza izendunak zuzenean eman ahal izango direla, hitzarmenetan eta dirulaguntza horiek arautzen dituzten arauetan jaso bezala.

Ingurumen teknikariak egindako proposamenaren arabera, dirulaguntza arautzeko hitzarmenaren baldintzak kontuan hartuta, Idazkari-kontuhartzaileak egindako aldeko txostena ikusita, eta "Eskoriatzako Udalak dirulaguntzak emateko erregimena arautzeko ordenantza orokorra"-ren 6.artikuluak emandako eskumenak erabiliz, alkate naizen honek honako hau

### ERABAKI DUT

**LEHENENEGOA.-** Udalaren eta KUXKUXERO KATUEN DEFENTSARAKO ELKARTEA-ren (IFK: G75416248) artean egin beharreko hitzarmena ONARTZEA.

**BIGARRENA.-** KUXKUXERO KATUEN DEFENTSARAKO ELKARTEA-ri 1000,00-ko dirulaguntza ematea ondorengo egitasmoa burutzeko:

- a) Zenbait kaleko katu antzutea.

**HIRUGARRENA.-** Hitzarmenaren 5.4 klausulan jasotakoaren arabera, dirulaguntzaren %60 ordaintzea hitzarmena sinatu eta arloko teknikariak ordainketa proposamena egin ondoren.

**LAUGARRENA.-** 1000,00-ko gastua konprometitzea, aipatutako dirulaguntzari dagokiona, eta indarrean dagoen udal aurrekontuko 0100.481.311.00.01 partidari egozte.



## Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

**Titulua / Título:**

2025DZIN0001-Alkate erabakia/Resolución (KUXKUXERO KATUEN DEFENTSARAKO ELI